

# Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko abenduaren 10a IV.urtea


Usurbil, 79. Zenbakia



**Gaztetxe bihurtu  
nahi dute**



## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Leire!** Abenduaren 1ean zure urtebetetze eguna ospatu-ko dugu. Muxu handi bat familia osoaren partez, baina batez ere Ane eta Maddiren partez.



Zorionak **Mikel** abenduaren 14an 7 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxe-koen partez



Zorionak nire izeba ederrari! Urtero bezala abenduaren 12an zure urtebetetzea baita. Ez dut ahaztu e? Eguna ondo pasako duzulakoan, zorionak **Ana Mari**. Kalezarreko hiloba- ren partez.



Zorionak **Zaloa Leoz!** Dagoeneko txanpaina fres- katzen jarri dinagu abendua- ren 10ean hik irekitzeko. Hik, kontua ordaindu eta... ondo orraztuta azaltzea besterik ez dun falta. Hire lagunak.



**Xabier**, abenduaren 10ean 12 urte beteko dituzu eta abenduaren 8an bere lehen- gusu **Oihaneren** urtebetetze eguna izan zen. Zorionak bioi etxe-koen partez.



Abenduaren 3an bederatzi urte bete zenituen. Zorionak **Irune** familikoan partez eta muxu handi bat Zurineren partez.

**Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezake- te. Ekarrri jarri beharreko testua eta argazkia.**

**Hurrengo alea: abenduaren 24a**  
**Ekaritzeko azken eguna: abenduaren 17a**

## Jaiotzak

**Julen Lazkano**  
**Iturrioz**  
(1999-11-26)  
Puntapax kalea

**Oscar Lopez de**  
**Samaniego Carrera**  
(1999-11-27)  
Santuenea

## Hildakoak

1999-11-22  
**Romana Sagardia**  
**Manterola**  
90 urte  
Kaleberri



1999-11-24  
**Braulia Irastorza**  
**Danborenea**  
83 urte  
Kalezar



1999-11-24  
**Inazio Murua**  
**Aixega**  
83 urte  
Aginaga

### EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO AUTOBUS ORDUTEGIA

#### ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40*	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40*	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

\* Orioraino bakarrik

\* Oriotik irtetzen da

\*\* Aiaraino joaten da

\*\* Aiatik irtetzen da

#### ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz
07.30	07.55	08.15
08.30	08.55	09.15
09.30	09.55	10.15
10.30	10.55	11.15
11.30	11.55	12.15
12.30	12.55	13.15
13.30	13.55	14.15
14.30	14.55	15.15
15.30	15.55	16.15
16.30	16.55	17.15
17.30	17.55	18.15
18.30	18.55	18.15
19.30	19.55	19.15
20.30	20.55	20.15
21.30	21.55	21.15
22.30	22.55	22.15

Zarautz	Usurbil	Donostia
06.45	07.05	07.30
07.45	08.05	08.30
08.45	09.05	09.30
09.45	10.05	10.30
10.45	11.05	11.30
11.45	12.05	12.30
12.45	13.05	13.30
13.45	14.05	14.30
14.45	15.05	15.30
15.45	16.05	16.30
16.45	17.05	17.30
17.45	18.05	18.30
18.45	19.05	19.30
19.45	20.05	20.30
20.45	21.05	21.30
21.45	22.05	22.30

### Udaltzaingoaren ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta iaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu  
deitu telefono honetara

943-361112

# Zer irizten?



## Argitaratzailea

Noaual Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaual@topagunea.com  
Web orria:  
<http://www.topagunea/noaual/>

## Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

## Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta  
Agurtzane Solaberrieta

## Publizitatea

Saioa Erro

## Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire  
Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain,  
Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako  
Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begirista-  
in, Zalao Arnaiz, Maritzi Arrospide, Agur-  
tzane Solaberrieta, Joseba Pellejero,  
Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz,  
Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola,  
Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro  
Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriaga,  
Urko Manterola, Eneko Harreguy, Kar-  
mele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia,  
Imanol Goenaga, Joxe Torregaray,  
Manuel Begiristain, Jone Aliri, Eukene  
Kamino, Olatz De Miguel, Jone  
Eizmendi, Jokin Zubiaur eta Arantxa  
Irazustabarrena.

## Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta  
Nerea Kamino.

## Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz,  
Amagoia Mujika, Agurtzane  
Solaberrieta eta Saioa Erro.

## Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz  
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

## Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta  
Nagore Gonzalez

## Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

## Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo  
Vidal eta Iker Muguruza

## Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

## Tirada:

2.600 ale

## Lege-Gordailua:

SS-668-96

## ISSN:

1136-6818

## Inprimategia:

Antza

Noaual hamabostekariak ez du bere  
gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-  
nen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaual Kultur Elkarteko jendaurreko  
udarako ordutegia: 11.00-13.00 astegunetan

## Azala:

Arrilaganea, gazteek  
gatzetxetat nahi duten  
etxea



## Patxi Arruti

### Odol emaileen elkarteko kidea

**1**974ko irailaren 24a egun garrantzitsua da guretzat. Oraindik begi aurrean daukagu egun horretan egin zen bilera. Lehen aldiz odol emaitzari buruz bilera egiten zen Usurbilen. Batzuek bazekiten hori zer zen, beste batzuek berriz lehen aldiz aditzen zituzten adierazpenak. Odol ematea zer, nola egiten zen, zertarako den entzun zuten. Eta dohainik, pezeta bat ere jaso gabe gure barrengo elementu hori behar duenari eskaintzeagatik.

Egun batzuk geroago, urriaren 11n, herriko lehen emanaldian 25 pertsonak eman zuten odola.

Hasieran urtean bi aldiz izaten ziren emanaldiak, gero lau eta gaur egun 6 aldiz. Lehenengo 25 haieetatik, pixkanaka goruntz joan da emanaldi kopurua. Gaur arte 6.368 emaitza izan ditugu. Nork daki zenbat gaixori lagundu ote diogun, emaileok ere tartean garelarik?

Nahiz eta orain urte gutxi gaur egun baino kopuru haundiago-tan ibili, 54 emaitza inguru izaten dira aldiko. Aurten 322 emaitza izan dira, iaz baino gutxiago. Emaile berriak ez ditugu asko izan, eta beraien beharra dugu.

Munduko Osasun Elkarteak 1.000tik 50ko emaitza du neurri egoki bezala. Usurbilen berriz, 65eko kopurua dugu. Maila onean gabiltza, baina hobetu nahi genuke, ez zenbakiak edertze arren, gero eta behar haundiagoak direlako baizik.

Hasieran odola beharrezkoa zen hil ala biziko ebakuntzak egin ahal izateko. Orain, zorionez, aurrerapenei eta emaileek esker, erabilgarriagoa da, osasun arloan baliagarritasun asko baititu odolak.

Datu zehatzak ez ditugu, baina organu emaileak ere goruntz doaz herrian. Bizirik ematen badugu odola, zergatik ez gure organoak aprobetxatu heriotz ondoan? Gaixo asko daude horien beharrean.

Pertsonak zerikusi haundia dugu honetan. Hasierako bilera haiek, emanaldiak, urte hauetako lana herritar batzuei eskertzen da. **Juste, Agate, Miren, Mertxe, Asintxio, Benantxio, Patxi, Kontxi, Arantxa, Begoña, Kolunba** etab.ekin egin dute lana ixiltasunean. Gaur egun, **Mirari, Agustina, Kattali, Mila eta Patxi** jarraitzeko asmoa dugu lanean, lehen aipatutakoen babesean.

Eta zu, herritar, odol emaile, babesle, zure beharra derrigorrezkoa izan da eta izango da. Hasieratik 600 emaile baino gehiago izan ditugu. Batzuek gutxitan ematen dute, beste batzuek berriz, askotan. Aurten, gure artean beren odola 50 aldiz eskaini duten 2 emaile ditugu, eta 25 aldiz eman dutenak 10.

Orain dela 25 urte... ez dago urruti gure hasiera. Urruti al dago beste 25 urteko helburua?



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

# ika-mika

## Nolabait konpondu beharreko arazoak

Aurreko astean bi gauza gertatu zitzaizkidan: Kaleberritik nindoala auto bat nere gainean ikusi nuen. Hau udaletxe ondoko bidetik behera zihoan, eta ni berriz autobus geltoki inguruan nengoan autoak bere muturra bidean sartu zuenena. Egia esan ez zen ezer ere gertatu, eskerrak!

Bide gurutz horretan ispilu bat egon da obrak hasi aurretik, baina obretan hasi zirenean kendu egin zuten, eta horregatik gertatu zen gertatu zena, eta egia esan, gehiago pasa ez zenerako ondo gaude.

Aste honetan konturatu naiz dagoeneko jarri dutela ispilua,

baina ez kondizio onetan. Ispilua okerra dago, ez da autorik badatorren ikusten eta gainera ondo egongo balitz ez litzateke ezer ikusiko hautsez betea baitago.

Bestetik, Kalezar auzoan kale oztopoak jarri dituzte bai sarre-ran eta baita irteeran ere.

Oso ondo iruditzen zait horrelakoak jartzea, baina oztopo horiek ere arazoak sortu ditzakete. Alde batetik oso altuak jarri dituzte, eta bestetik euria egiten duenean putzu haundiak sortzen dira, eta hau motoan ibiltzen garenontzat kaltegarria da. Izan ere gurpilak joan egiten dira bai pilotzen den uraren ondorioz, eta bai goma irristakorra delako..

Aintzane Aizpurua Apeztexea

## Akatsak zuzenduz


78.alean izandako akatsak zuzendu nahian gatozkizue oraingoan. Alde batetik "Izardi patsetan" atalean "Oidui eta Haritz txapeldun alu eta erdian" izenburupean idatzi genuen albiste bat. "Oidui eta Haritz txapeldun lau eta erdian" esaldia zen ordea, esaldi zuzena. Bestalde, herriko sagardotegietan 2.000 litro inguru egin zirela jarri genuen, baina kontuak ondo atera badituzue 2 milioi litro zen kopuru zuzena.

## Erredakzio Kontseilua

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezizenez sinatu daitezkeen arrez *Noaia!* beti jakin behar du nork idatzi duen. Gutunak *Noaia!*ra bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.

# xirrikitutik

Hara hemen Atxega jauregiko azken biztanlea. Berritutako jauregia inauguratu baino lehen harrapatu zuten ontza polit hau bertako ganbaran. Laupabost pertsona bere atzetik ibili behar izan zuten harrapatzeko. Izan ere, nork ezagutzen zuen Atxega jauregia berak baino hobeto?



Haur jantziak

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

# MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea,3 - Tif. 943 36 11 06

# P A T R I

## J A T E T X E A

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



## Anastasio Astigarraga Urkola

Donostiako Lugaritzen jaio eta lau urterekin Lasartera joan zen bizitzera. Txikitandik golf-a oso gogoko du, Asteasuango golf zelaian egon baitzen urte askotan. 1951eko abenduaren 1ean etorri zen Usurbila bizitzera guk elkarrizketa egin genion egun berean.



**Orain golfean askotan ikusten zaitugu, baina zaletasun hori ez datorkizu gaur goizetik.**

Ez horixe, lehen jaunartzea egin ondoren hasi nintzen Asteasuango golf zelaira joaten. Garai hartan, eta gero ere bai, golf-ak diru asko ematen zuen, eta han ibiltzen nintzen ni ere. Belarra mozteko makina bultzatzeagatik duro bat kobratzen nuen goizean, eta arratsaldean golf-fistei makilen boltsa eramaten laguntzen nien, eta eskupeko bikainak lortu ere bai.

**Gero Luzuriagan lanean hasi zinenean joaten al zinen golf zelaiara?**

Nola ez ba! Zortzi ordu lan egin ondoren gustora joaten nintzen "caddy" lanak egitera. Garai hartan haundikiak jokatzeko zuten golfean eta haiek laguntzaileak behar izaten zituzten. Haiekin diru asko irabazia naiz ni. Ni baino laguntzaile hobeak bazeuden, baina bezeroak bilatzen onetsuenetako bat nintzen ni. Profesional onetsuenekin ibiltzen nintzen.

**Makilak eramateagatik ondo kobratzen zenuten beraz.**

Batzuk ondo ordaintzen zuten, besteak berriz gutxi; denetik zegoen. Hala ere gauza bat ondo ikasi nuen: gehiena duena ez da gehien ordaintzen duena e! Pertsona txarra, niretzat, Marques de Villaberde zen; txuloa, harroa

**Zer jende ibiltzen zen golfean garai hartan?**

Haundiki jendea. Frankoren ministro ugari pasa zen Asteasuaindik eta Hondarribitik ere bai. Ministerioan ez bazueden ingurukoak izaten ziren. Behin Hondarribian Mayor Orejaren suhia zen Arburua komertzio ministroaren laguntzaile ibili nintzen. Hark zuhaitz artera botatzen zuen pelota eta Euskadin zuhaitz asko zegoela esaten zuen gero. Zuzen bota besterik ez zuen! Hala ere gauza bat aitortu beharra dut: eskola haundirik ez nuen, baina haiekin asko ikasi nuen.

**Ministroekin ere ibilia zara orduan?**

Baietz ba. Ordurako urteetan aurrera nindoan eta batzuekin konfidantza piska bat ere egin nuen. Beste behin Cabestany nekazaritza ministroa etorri zen Usurbila Saroe jauregira eta esan zuen: "jauregia ondo dago", eta nik: "noski

ondo dagoela". Modu horretanez erantzuteko esan zidan.

**Zein izan da lagundu diozun golf jokalaririk onena?**

Nire auzoa, bigarren pisuan bizi zen Nikasio Sagardia. Hura zen profesional onena. Nik berekin ikasi nuen. Gero Asteasuango golf zelaian ez zioten nahi zuena eman eta Bartzelonara joan zen.

**Nolakoa zen Asteasuango golf zelaia?**

Oraindik ez dut inoiz ikusi hura bezalako zelairik, telebistan ere ez. Bederatzi zulo zituen eta zuzengunetik ateraz gero ia metroko belarra zegoen; pelota galdu? galduko ez zen ba han! Erreka, zingira... Hala ere esan beharra dago: Hondarribikoa oso elegantea da, ederra.

**Golf zelai askotan izana zara ezta?**

Golfa oso gogoko izan dut beti, eta zelai askotan izana naiz, bai. Zarautzen, Donibane Lohitzunen, Bilbon lehen Negurin zegoen zelaian, Hondarribian... guztiak ezagutu ditut.

**Asteasuango golf zelaia kendu zutenen zer egin zenuen?**

1968 inguruan itxi zuten, eta ordu arte han ibiltzen nintzen ni aurrera eta atzera. Hurrengo hiru urteetan Hondarribiko Jaizkibel golf zelaira joaten nintzen. Garai hartan Kalezarren bizi nintzen, behera jeitsi eta Zarautzik etortzen ziren golf-fistekin joaten nintzen. 1972an utzi nuen "caddy" lan hori. Zahartuta negoen eta uzteko garaia zen.

**Hala ere golfean ibiltzen zara ezta?**

Makil bat daukat eta pelotak ere bai. Beraz, Harane futbol zelaian eta Orion zubitik kanpingera dagoen zelai horretan gustora ibiltzen naiz golfean. Askok esaten dute: "zer egiten du aitona horrek pelota jotzen?". Jo egin behar zaio e! Seguru egon honetaz: sekula makil bat hartu ez duenak ez du pelota joko.

**Eta golf-a telebistan ikusi ere bai.**

Noski! Beste edozein kirol baino gustorago ikusten dut. Orain gainera oso jokalaria onak daude. Golpea eman eta pelota han gertu uztea... hori profosionalek bakarrik egin dezakete.

# TXOKOALDE

Olatz Goenaga



## Birziklatzeko ontzi txiki eta horia

**A**uzoko jendea birziklatzeko ontziak erabiltzera ohitu gara dagoeneko.


Hasieran berdea jarri zuten; kristalezko botailak eta ontziak botatzeko. Geroago urdina agertu zen; paperak, egunkariak, kartoiak... botatzeko. Eta azkenik horia azaldu zen; tetra-brik, plastikozko botilak, latak... botatzeko.

Birziklatze ontzi hauen erabile-  
ra ona dela pentsatzen dut, bete behintzat egiten dira eta. Baina Txokoalden beste birziklatzeko ontzi, txiki eta horia falta zaigu, pila erabiliak botatzekoa. Pilak bota behar ditugun bakoi-tzean Usurbila joan beharra

daukagu, eta pilak etxean bueltaka ibiltzen dira, botatzeko erabakia hartu eta poltsan edo poltsikoan sartu arte, eta noski, gero Usurbilen ontzi horiaren ondotik pasatzea egokitu arte.

Bestalde Txokoaldeko Gaztetxean kontzertu bolara dugula dirudi. Azaroaren 23an aste erdian, Belgikatik etorriak diren "Unhinged" eta "Ira et Decesus" en kontzertua izan

zuten eta azaroak 27an larunbatean, "My Own Truth", "Anti Heroe" eta "Amoniac 87" taldeen kontzertua. Abenduan beste kontzerturen bat antolatzeko asmoa ere badute.



# KALEBERRI

Ines Kamino



## Maistranea bota dute

**A**zken bolada honetan Kaleberriko etxe zaharrei buruz idazten ari naiz. Orain arte zenbait etxe aipatu ditut, eta oraingo honetan Erramuxenea eta Ortelanoneari buruz idazteko asmoa nuen, baina bapatean nire asmoa alde batera utzi beharrean aurkitu naiz.

Izan ere, pasa den astean aurreko batean aipatu nuen Maistranea bota zuten etxe berriak egiteko. Denbora dexente pasa da bota behar zutela esan zutenetik, baina urteak joan urteak etorri, hortxe mantendu da kale nagusian zutik eta tinko. Bota duten arte noski!

Jende ugari pasa da etxe horretatik, bai horixe. Garai batean eskola izan zen, eta herriko neska gehienak hor ibiltzen ziren aurrera eta atzera. Ikasgaiak ikasteaz gain, "gaiztakeriak" egiten ere ikasten omen zuten.

Postetxea ere izan zen Maistranea. Zenbat eskutitz jaso ote zituzten beheko lokalean? Auskalo! Postetxe berria ireki ondoren ere, jendeak lokal zaharrera botatzen omen zituen eskutitzak.

Baina hor ez zeuden postariak, *Noaia!* Kultur Elkarteak bai-zik. Urte batzuk egin zituzten hor, eta laister botako zutela jakinaz

Eguzkitza aldera alde egin zuten.

Goiko pisuan berriz, Sagardo Egunaren lagunak taldeak traste ugari edukitzen zituen. Beharko, sagardo eguna antolatzean biltzen den material guztia ikusita... Hauekin batera Elkarrikoen ere hor zuten beren egoitzatxoak.

Orain berriz, ez dago ezer, bota dute dena. Hala ere ez dagoen egoeran ez du denbora asko iraungo. Txaramuntoko etxeak eraikitzeke lanak hasi dira, eta Maistranea zegoen lekuan etxeak ikusiko ditugu hemendik gutxira. Orduan ez gara Maistraneaz gogoratuko...

# KALEZAR

Ainara Uribe



## “Kalezarko” parkea

Zer nolako suertea duten haurrek! Usurbildik Kalezarrera bidean, Puntapaxera iritsi baino lehenago dagoen parkean, “jostailu” berriak ipini baitituzte. Bi kulunkari mueiledun eta eskalatzeko muntaia bat.

Gaztetxoak!! Berri-berriak daudela probatu nahi badituzue, lehen bait lehen bisitatu parkea, ez baitute gehiegi iraungo. Normalean, modu honetako parkek ez dira gehiegi zaintzen eta berehala zahartzen dira. Ez haurrek zaintzen ez dituztelako! Haurrak baino,

hain txikiak ez direnak ibiltzen direlako baizik.

Egia esan, ia egunero zehar-katzen dut jolastokia eta gutxitan egoten da haurrik, beraz, gauzak puskatzen dituztenak


bestelako “umeak” izango ote dira?

Batzuk, nonbait aspertu egiten dira. Triste!!

Kuriositatez, parke honek izenik duen ez dakit, baina denek

“Kalezarko parkea” deitzen diote. Eta jolastokiak Kalezar bezain gertu dauka Usurbil. Zergatik, orduan, “Kalezarko parkea”?

Erdian kokatzen denez, Olarriondon dagoela esatera ausartuko nintzateke. Zein izen letorkio hoberen?



# ATXEGALDE

Zaloa Arnaiz



## Familia haunditzen doa

Ingurune honetan ezin kexatu gaitezke zaratarengatik gau partean. Asteburuetan kotxe edo motoren batzu kerduta, ixiltasuna nagusi da Atxegaldeko gau luzeetan.

Azken egun hauetan, aldiz, iluntze partean ezohizko zarata izan dugu Mahaspildegri inguruan. Kuriositateak bultzatuta, bat baino gehiago hurbilduko zen jakinmin hori asetzera.

A zer sorpresa, zirko bat Atxegalden!! Beno zirko zirkoa ez, baina kamioi, karabana eta kotxe ugari “Berroti Zirkoa” jar-tzen dutenak bai behintzat.

Badirudi leku hau edonorentzat parada egiteko toki aproposa dela, baina oraindik zerk erakartzen dituen ez dut jakin. Beharbada beste nonbaiten zeuden eta lekuz aldatu beharrean aurkitu dira. Non hortxe baino leku hobeagorik? Hauek eta asfaltitik dagoen karabana txuriak behelalde horretako paisaia zoragarria aldatu dute.

Besteren bat leku horretan

parada egiteko asmoarekin badago, ahaleginak egin beharko ditu txoko bat egiteko. Bestela, auzoan kale gehiago badaude, aukeratzea izango da kontua.



# SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



## Ditxosozko bide-oztopoak

**A**zken bolada honetan hitzetik hortzera dabilen gaia ibilgailuek abiadura mantotzeko jarri dituzten oztupoak dira. Baten batek ez du denbora gehiegiri galdu, oztupoak jarri bezain laister kendu baititu. Hor ditugu Udarregi eta Agerialdeko kasuak, eta herri sarreakoa ere. Herrian denetik entzun daiteke auzi honen inguruan; lapurrak ondo egiten duela oztupo horiek kotxeak izorrratu besterik ez dutelako egiten, gaizki egiten duela lapurturikoa diru publikoarekin erositako materiala delako eta kale nagusian kotxeak abiadura haundiz ibiltzen direlako, etab.

Gure auzoari eskeintzen zaion zati honetan, ez ditut herrian dauden aldeko eta kontrako jarrera horiek baloratzen sartuko. Hau guztia idaztearen arrazoia honako hau da; duela hilabete dexente kronika honetan gai berdina aipatu banuen ere, berriro eskatzera behartuta nago. Santueneako sarreran ikastolara joateko geltokia dago. Haurrek sarri bi aldeetara begiratu gabe zeharkatzen dute bidea. Bide zati hau oso arriskutsua izaten da askotan, kotxeak abiadura haundian igarotzen direlako semaforoa gorrian jarri aurretik. Ez dakit oztupoak jarriz gero arriskua

gutxituko den, baina orain gaia gori-gorian dagoen honetan, Santueneako egoera ere aztertzea eskatuko nioke udaltzaingoari.



# URDAIAGA

## Udazkenean negua

Joseba Zubeldia



**U**dazkenaren hasieran eguraldi bikainak egin baituen ere, udazkenaren bigarren erdia iritsi denean zeharo aldatu da eguraldia, tenperatura nabarmen jeitsi, euria eta elurra. Halaxe da, bai, azaroaren 20an elurra egin zuen auzo honetan beste auzo askotan bezala.

Bezperan eguraldi kaxkarra egin zuen, elurbusti eta guzti. Eguna ez zen hain triste jeiki, izan ere, eguzki izpiek garai honetan eskeintzen duten epeltasun apurraz gozatzeko aukera izan baitzen. Baina eguerdi aldera, itsas aldetik

zetozen laino beltzen presentzia areagotuz joan zen, eta ordubatak laurden gutxi aldera



elurra mara mara hasi zen, hura botatzea!. Ordu bete nahiko izan zen auzo honetako bazterrak zuritzeko. Egia esan, gure auzoa benetan polita ikusten da elurra egiten duenean. Politza zein arriskutsua, ez baitaukagu biderik erosoena, are gutxiago elurtuta dagoenean.

Txoriak jana bilatu ezinik hasi zirenerako, ordea, elurra botatzeari utzi zion eta piskanaka urtuz joan zen hurrengo egunerako guztia desagertu zelarik.

Udazkenean negua egin badu, zer egin behar ote du neguan?



# AGINAGA

## Angula urtea

**B**adirudi angulak negu usaia hartu dutela eta maletak eginaz Aginagako bidean direla. Ondorioz, hemen lehenengo "kalak" eman dira, baiak uretatik nahiko beterik atera direlarik, anguleroen pozerako.

Kiloen kopuru altuak entzun dira, sinesgarriak ote?

Beraz, badirudi aurtengoa angula urtea dugula eta jendea marearekin batera, Aginaga aldera etortzen hasiko zaigula ibai-ertza argi dizdiratsuz betetzera. Gero, gabon gaueko mahai dotoreak apainduko dituzte Aginagako


angulak. Aginaga edo Angulaga?

Beste alde batetik, Aginagan egin behar den frontoiaren aldeko batzorde bat sortu da. Batzorde honen eskaera frontoia lehen bait lehen egitea da eta hori lortzeko zerbait egiten hasiak direla ere entzun dut. Ea, ba zerbait lortzen dugun. Egia esan frontoi batek bizi poza emango lioke auzoari, batez ere, gazte jendearentzat.

Oxkar Santamaria



Azkenik, esan behar Aginaga zainduko duen gurutze bat eraiki digutela Urdaira aldean, gure auzoruntz begira. Jainkoak bedeinka gaitzala!!



# ZUBIETA

## 2000 efektua


**E**z da besterik entzuten gure komunikabideetan, efektu 2000 gora eta efektu 2000 behera. Badirudi urte borobil horren hasieran, gure ordenagailuak zorabiatu egingo direla eta horrekin batera, hotzgailluak, bideoak, kutxazain automatikoak eta abar luze batek arazo ugari izango dituztela. Norbaitek sorpresaren bat iza ndezake bere banketxeiko kontu-korrontea begiratzerakoan.

Pasa den egunean irakurtzen nuen egunkari batean, Estatu Batuetako hainbat jende egun batzuetarako jakiak pilatzen ari dela bere etxean. Agintari

batzuk egun horretan trenean edo hegazkinean bidaiarik ez egitea aholkatu dute, gainera. Beti iruditu zait amerikar hauek nahiko "paranoikoak" direla eta gauzak bere onetik ateratzen dituztela, primerakoak direla.

Azken finean, hainbeste hitz egin ondoren, egun hori etortzean ziur nago ez dela gauza haundirik gertatuko. Beti bezala bizitzen jarraitu beharko dugu,

Mikel Bengoetxea




betiko arazoetan murgilduta, eguneroko monotoniari jarraituz eta gauza guztiak presaren presaz eginez. Honetara behartzen baikaitu ordenagailuz gidatutako gizarte honek.

## Usurbilgo gazte guztientzat gaztetxea bihurtu nahi dute Potxuenea

**G**azteak indarrez datoz oraingoan. Herriko gazteak bildu eta ekimen desberdinak aurrera eraman ahal izateko leku baten eskean ari dira. Dagoeneko hiru bilera egin dituzte, eta hasieran gutxi batzuk bildu baziren, azken bileran 25 gazte inguruk elkarren artean gaztetxearen funtzionamendu, egitura eta beste hainbat gauzez hitz egin zuten. Zer etxe nahi duten ere erabaki dute: Irazu kaleko Arrillaganea.

Herriko kaleetan zenbait kartel ikusiko zenituzten azken hilabeteetan. "Gaztetxea?", "Usurbilgo gazte guztientzat gaztetxea noizko?" Bat baino gehiago harri eta zur utziko zuten galdera hauek. Zer da hau? Zer esan nahi ote dute kartel horiek? Orain, ordea, dena argituz doa. Herriko gazteek ere leku bat izan nahi dute herri honen egunerokotasunean. Ez dute leku fisikoa bakarrik eskatzen, herri honetan gazte mugimendua sortu nahi dute.

Jarrai gazte taldea izan zen gaztetxearen ideia honi hasiera eman ziona. Herrian ekimen desberdinak antolatzerakoan, parte hartzerakoan gazteak ez zirela mugitzen ikusi eta gazte mugimendu hori berpizteko gaztetxe baten beharra nabarmendu zuten. Azken finean herriko gazteak bildu, elkar ezagutu, elkarrekin egon



eta ekimen desberdinak bultzatu ahal izateko tresna bat izango da gaztetxea.

Bide honi Jarraik ekin bazion ere, herriko gazteek hartu dute orain lekukoa. Lehendabiziko bileran nahi baino gutxiago bildu ziren, baina piskanaka-piskanaka gaztetxearen oihartzuna zabalduz doa. Azaroaren 28an adin desberdinetako 25 gaztetik gora bildu ziren eztabaida-

bileran eta dagoeneko beraien egitasmoa zehaztuta dute.

Gaztetxea Irazu kalean dagoen Arrillaganea edo Potxuenean kokatu nahi dute. Etxe hau udalarena denez, 125 firmatik gora bildu eta pasa den azaroaren 30ean egin zuten eskaera. Ez dute uste udalak oztopo haundiegirik jarriko duenik, baina behar izanez gero etxe hau okupatzeko prest agertu dira herriko gazteak.

**Lehendabiziko bileran asko bildu ez baziren ere, azkenengoan 25 gazte inguru elkartu ziren Udarregi zaharrean**

**Lanerako gaztetxe bat nahi dute**

Gaztetxe bizia sortzea da egitasmo honen helburua. Gazteak bertan egotera bakarrik ez, ekimen desberdinak antolatu eta beste herri askotan bezalal seriotasun batekin funtzionatzea lortu



Tel. 943 36 20 49 Zubieta

**Txekor afaria abenduaren 18an, larunbatean**

Txartelak aldeztatik salgai  
Araetako tabernan

**ARAETAN**

Txorizoa sagardotan egosia, bakailao tortila eta bakailao frijitua piperrekin

2.500 pzta.  
(BEZ barne)

**200 kg.ko Igeldoko txekorra 16 ordutan errea**

Gazta, membriloa, intxaurrak eta kafea

nahi dute. Horretarako, behin gaztetxea lortu ondoren hilean behin elkartuko den gazte batzar bat sortzeko asmoa dute. Azken finean astean 10 ordu dituen gazteak ordubete gaztetxeari eskaintzea da beraien ametsetako bat.

Herriko edozein gazte gaztetxe honetako ateak irekita izango dituela argi dute. Gero eta gazte gehiago ibili ekimen desberdinak antolatzeko aukera gehiago izango dira. Horrez gain herriko gazteak gustora egongo diren leku bat izatea nahi dute

### Gaztetxearen antolaketa zehaztu nahian

Arrilaganea gaztetxe bihurtzea da beren asmoa. Horretarako, udalari eskaera egin aurretik antolamendua- ren inguruan halako zirriborro bat egin dute orain arte aurre- ra eraman dituzten hiru bilere- tan. Hasiera batean gaztetxea adinaren arabera banatzea komeni zela ikusten bazuten ere, proposamen hori atzera bota da. "Gaztetxeak guztion- zat izan behar du, eta ez du adin desberdintasunik egon behar". Beraz, solairu eta gelen antolaketa egiterakoan bestelako oinarri batzuk erabili dituzte.

Potxueneak edo Arrilaganeak baxu bat, bi solairu eta ganbara ditu. Behean kontzertuak egiteko lekua egongo da, nahiz eta festa haundietan, autofinan- tiazio bidean bertan taberna jartzeko aukera izan nahi duten. Hasiera batean herriko

## Gaztetxea sortzen lagundu nahi duzuen guztiontzat oharra: datorren bilera abenduaren 19an izango da 16.30etan

musika taldeen entsaialekua izatea ere proposatu zen, baina azkenean aukera hau atzera bota dute. Baxu hau bilera haundiak edota hitzal- diak antolatzeko ere erabiliko lukete. Beste bi solairuetan denbora pasarako lekua, etxe- kolanak, irakurketak egiteko gela etab. jarri nahi dituztela esan digute, baina etxea nola dagoen oraindik ez dakitenez, ez dute erabaki zehatzik hartu horren inguruan.


Izan ere, udalak datorren urteko aurrekontuak onartu baino lehen sartu behar izan dute eskaera. Horretarako, etxea ikusi gabe zirriborro bat

egin dute, baina horrek anto- laketa aurrez zehaztutako hori izango denik ez du esan nahi. "Etxe hori gaztetxea bihurtzen uzten badigute, gero erabaki- ko dugu nola egituratu eta nola lana egin".

Herriko gazteak girotzen has- teko, azken bileran bildu ziren gazteak gazte egun bat anto- latzeko prestaketetan dabilta. Abenduaren 29an herriko fron- toian gazteei zuzendutako bazkari bat egingo dute eta ondoren beste herrietako gaz- tetxeetakoek beren esperien- tziaren berri emango dute. Horrez gain, jokoak, trikitaliak etab. izango dira. Hala ere, aurretik, gaztetxearen ingu- ruan beste bilera bat izango da. Abenduaren 19an Udarregi zaharrean bilduko dira arratsaldeko 16.30etan. "Guk herriko gazte guztiak bilera honetara animatu nahi ditugu, guztion artean gazte- txea aurrera atera behar dugu eta".



## TXURRUT edaritegia



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1  
Tel: 943 36 00 80



### Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES  
SETABU, S.L.  
TAILERRAK

Ugarte Industrialdea, 7 Pabiloia  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tel.: 943 36 08 48

# Herrorrek esan



## Haritz Gorriti

Atxegalde

**N**ere ustez Usurbilgo gazteak ez dugu egoteko eta biltzeko tokirik. Mota honetako toki bat ondo etorriko zaigu gazteoi. Herriko taldeak parte hartzeko ekintzak burutu beharko lirateke, astebukaeretan ere ekintzak antolatu beharko lituzke denbora pasatzeko, askotan gazteok aspertuta egoten baikara astebukaeretan.



## Agurtzane Alkorta

Atxegalde

**O**rain arte egon diren gaztetxeak baino txukunagoa izan behar du planteatzen den gaztetxe hau. Zabala izan behar du, talde ezberdin asko bildu behar ditu, Zarautzen planteatzen ari denaren antzera.



## Oihana Lizaso

Atxegalde

**B**eharrezkoa ikusten dut Usurbilen gaztetxe bat irekitzea. Usurbilgo gazte guztiak bilduko dituen lekua izan behar du eta ez gazte talde konkretu batentzat. Gazteak dituzten kezak, arazoak... argitu eta konpontzeko txarrik antolatu behar lituzke, eta bigarren maila batean gure aisialdirako izan beharko luke.



## Intza Salsamendi

Kaleberri

**N**eri baietz iruditzen zait. Denontzako irekia izan behar du. Ekitaldi kulturalak, txirlak, kontzertuak... antolatu beharko lituzke. Ni ere bertan lanean parte hartzen ari naiz.



## Saioa Fernandez

Atxegalde

**O**ndo iruditzen zait Usurbilen gaztetxe bat egotea. Gazteak eskatu badute beharra ikusi dutelako izan da. Jende guztia-entzat irekia izan behar du eta leku handia, kontzertuak egoteaz gain, lasai egoteko lekua ere izan behar du.



## Agustin Lizaso

Kaleberri

**O**ndo iruditzen zait, baina ez orain duten aktibitatearekin jarraitzeko. Kultur mailan lan egin eta gazte arazoak sakondu beharko ditu. Gazteek dituzten milaka arazo aztertzeko gunea izan behar du, eta ez musika entzuteko toki bat. Honez gain ere, herriko ekintzetan parte hartu beharko luke gaztetxeak.



## Iñigo Agirrezabal

Atxegalde


**U**surbilen gaztetxe bat beharrezkoa da, gazte guztiak elkar ezagutzeko toki baten beharra dagoelako herrian. Ekintza kulturalak antolatu behar dira, aspaldi hontan ez baitira horrelako ekintzak antolatu. Oraingo gaztetxea, kuadrila batentzako bakarrik dago irekia, eta ez Usurbilgo gazte guztiontzat. Gu lana egiteko gogoarekin gaude.

XABIER  
EDARITEGIA

**Etor zaituz,  
eta dasta itzazu  
Goierriko produktuak**

- ✗ Idiazabal gazta
- ✗ Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66



**TXIRIBOGA  
TABERNA**

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

**N • I**  
**Ileapaindegia**  
MISTOA

*Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura*

**Aritzeta 2-2 1.A  
Tel.: 943 36 19 51**

# Noaqua!!!

sustraietatik  
adarretara,  
euskarara

u s u r b i l  
1999<>2000

## MILURTEKO AZKEN JAIA: EGITARUA

10:00etan hasita AZOKA IREKIA eguerdiko  
14:00ak arte. Baserriarrak, artisauak,  
abereak, erakusketak, antzerkia, trikitila-  
riak, herri-kirolak... Azoka irekia da eta  
edonork har dezake parte.

11:00etan Udarregi Ikastolako haurren  
desfilea azokaren gunetik polikiroldegira.

11:20etan Udarregi Ikastolako haurren  
antzerkia kiroldegian.

12:00etan Ixabel Agirresaroberen "Pantxi-  
karen Atlasa" haurrentzako ikuskizuna  
kiroldegian.

Jon Bergaretxe kantautorea kiroldegian.

12:30etan Olentzeroren ibilbidea, kirolde-  
gitik Azokara.

12:30etan aizkolariak: Peñagarikano eta  
Txapartegi aurrez aurre: 8 kanaerdiko  
enborrekin.

13:00etan harrijasotzaileak: Perurena eta  
bere semearen erakustaldia.

Bazkalordua

16:00etan idi-dema: Joxemari  
Mendiluzeren idiak eta Txomin  
Alkortarenak aurrez aurre.

17:00etan ikuskizuna kiroldegian:

- Andoni Egañak eta Imanol Urbietak  
jaialdirako sortutako abestiaren emanal-  
dia, Takolo, Pirritx eta Porrotx, Labrit eta  
Egañaren eskutik.

- Dantzariak.

- "Upeletan Erronka", Egaña eta  
Peñagarikano bertsolariekin eta  
dantzariekin.

18:00etan frontoian Izotz taldearekin  
erromeria.

19.00etan Labrit kantautorea kiroldegian.

Bertso poteoa, bertsolari, trikitilari,  
txistulari eta abeslariekin.

Afalordua

0:00etan kanpaikadak, txalapartaz  
lagunduta.

0:30etan frontoian Izotz taldea.

1:0etan Kantariak eta musika kiroldegiko  
tabernan.

# Urtezahar jaialdi

**U**da parteko atarramendua da Milurteko Azken Jaia antolatzearen ideia.

**Hasiera batean zaila bazirudien ere, ideari hainbat buelta eman ondoren, egin zitekeela otu zitzaion norbaiti eta orduetik honako historiaren berri emateko asmotan idatzia da "historia" hau.**

Honako hausnarketa hauek bultzatu zuten "atarramendu" haren bilakaera:

- Elejira Kanpaina aberastu eta amaiera emateko modu egokia zela, bide batez UEMAren mezua zabaldu eta UEMA bera ezagutzera emanez.

- Erdal giroan hain ohiko bihurtzen ari diren "kotilloi" en arreetan ez dagoela euskaldunentzat antzeko alternatibarik. Ez zen gure asmoa, ordea, gauza bera euskaraz egitea, baizik eta euskaraz izateaz gain desberdina ere izatea, euskal kulturari lotua, planteamenduaren aldetik nahiz jaia osatuko luketen ekitaldien aldetik.

- Aspaldi genbiltzan euskal kulturari lotutako jaialdi bat antolatzeko asmotan eta hasteko une aproposa iruditu zitzaigun 2.000. urtearen etorrera, sortuko duen oihartzuna dela eta.

Jaialdiarentzako lekua aukeratzeko besterik ez zitzaigun falta eta UEMA barruan aitzindari dena izatea ikusten genuen egokien: horregatik jo genuen Usurbila.

Uztailaren amaiera aldera egin zen lehenengo bilera herriko

hainbat lagunekin, proposamenaren inguruko iritzia jasotzeko, eta egoki ikusi zen.


Idea borobiltzen joan zen pixkanaka eta irailaren 11n aurkeztu genuen Usurbilgo batzarrean. Jendea ideari buelta gehiegirik eman gabe proposamen ugarirekin etorri zen.

Hortik aurrerako antolaketa lanak bideratzeko hiru lantalde sortu genituen: propaganda, egitaraua eta azpiegitura lantaldeak. Lantaldeetan egindako bileretan jorratu dira xehetasun guztiak, eta behin hori zehaztuz gero lantaldeko kide bakoitzak hainbat lan hartu du bere gain.

Bien bitartean Eusko Jaurlaritzara eta Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako dirulaguntza eskarien erantzunaren zain denbora asko joan zaigu eta hori dela eta nahiko lan izan dugu egitaraua garaiz ixteko.

Hasierako asmoak handiak baziren ere, bileretan zehar entzundakoak direla eta asko aldatu dira: Euskal Herri mailako oihartzuna eskuratuko zukeen jaialdia genuen guk gogoan, baina herriko ohiturak eta herriko jendeak esandakoari men eginez, neurritz txikitzen joan da: Egunean zeharreko jaia izango da azkenean, Usurbilen ohikoa den gaueko giroa errespetatuz.

Jaialdiaren antolaketa lanek aurrera egin ahala propaganda-rako erabili beharreko bideak ere jorratzen aritu ginen eta horietako bat abesti bat egitea izan zitekeela otu zitzaigun. Imanol Urbietarekin harremane-



tan jarri orduko jarri zen abestia martxan. Andoni Egañarekin hitz egin eta hura ere prest zegoela. Lan zaila jarri geniolakoan geunden, jaialdia eta mezuaren inguruko orrialde bateko azalpena eta UEMAren bideoa emanda bidali baikenuen etxera. bidali zigun, ordea, letra Egañak eta bi egunen buruan Urbietak prest zuten musika ere.

Egun asko behar izan ditugu leloa aukeratzeko. Proposamen asko pasa dira gure begien aurretik: "2000. urtea jota pasa!", "Euskarak beste mila, zatoz Usurbila"... baina Egañaren letra jaso genuenean hari begira gelditu eta hark eskaintzen ziguna iruditu zitzaigun egokiena: "Sustraietatik adarretara", horrek adierazten baitu egokien guk esan nahi genuena: lehena (sustraiak) eta etorkizuna (adarrek), eta baita oraingo enborraren gerrialdeko estuasunak ere. Guk "euskara" besterik ez diogu gehitu: "Sustraietatik adarretara, euskara". Lelo hortatik bertatik atera da anagrama bera, eta jaia ira-

## Jantzi aproposenari saria

Antolatzaileek 2000.ari ongi etorria garai bateko euskal jantziekin ematea proposatu dute.

Beraz, jaia girotzeko utzi alde batera "gala" soineko eta korbatak, eta prestatu aintzinako euskal jantziak, edo gutxienez, baserritar jantzia. Eguerdia partean sari bat emango zaio jantzirik egokienari.

## Kiroldegiko taberna gauean zabalik

Aurten, 2.000 urtea datorrela eta, urte zahar gauean parrandarako beste gune bat izango dugu. Izan ere, kanpaikadak eta gero, kantariak eta musika izango ditugu kiroldegiko tabernan.

# baten istorioa



gartzen duen txartela ere bai. Badugu Egañarekiko puska baterako zorra.

Egitarauan era guztietako ekitaldiak jaso ditugu, herri-kiroletatik hasi eta musika kontzertuetaraino. Arreta berezia eskaini nahi izan diegu lehendik ere herrian egiten ziren ekitaldiei eta ahal delarik, horiek sendotzen ere saiatu gara: Olentzeroa, bertso-poteoa, erromeria... Halere azpimarratu nahi dugu egitarauak, hemen azaltzen denaz gain, irekia izaten jarraitzen duela eta edonork har dezakeela parte egun horretan: bakoitzak erakus dezala berea. Hori bilatu nahi izan dugu bereziki goiz parteko azokarekin eta saiatu gara herri-tarrek egindako proposamen guztiak bertan jasotzen.

Jaialdia, beraz, prest dago, eta gonbidapena ere hementxe daukazue: Milurteko Azken Euskal Jaia Usurbilen izango da eta euskal giroaz gozatu nahi duenak Hementxe dauka aukera politena.

## Abenduaren 22an bilera irekia

Jaialdiaren berri izan nahi duen edonork, abenduaren 22an arratsaldeko 7etan izango du aukera. Antolatzaileek udal-txean jaialdiaren aurkezpena egingo dute.

## Usurbildarren parte hartzea garrantzitsua jaialdian

**U**rte zaharreko jaialdian usurbildarrak izango dira protagonista nagusiak. Ez bakarrik egunean bertan, aurretik egindako antolaketa lanetan ere aritu baitira.

Antolatzaileek hasieratik garbi zuten funtsezkoa zela usurbildarren parte hartzea festa antolatzekoan. Izan ere, herria hoberen herritarrek ezagutzen baitute eta beraiek dakite Usurbilek zein neurriko festa behar duen. Beraz, abenduaren 31ean herritar askoren ekitaldiez gozatzeko aukera izango dugu.

Goiz partean, **Udarregiko haurrek beren emanaldia** eskeiniko digute. **Ixabel Agirresarobe** ere izango dugu bere "Pantxikaren atlasa" ikuskizunarekin. Azokan ere herriko baserritarrek, artisauek, trikitilariak... izango dute bere txokoa. Peñagarikano aizkolariaren saioa ikusteko aukera izango dugu eguerdi aldera.

Arratsaldean, berriz, **Joxe Mari Mendiluze eta Txomin Alkorta** usurbildarren idiak aurrez aurre izango ditugu.

Aurretik ere lanean aritu dira usurbildar ugari. Adibidez, festaren anagrama **Nagore Leozek** disenatu du. Bertan bi

idea nagusi azpimarratzen dira: alde batetik, festaren leloa den "sustraietatik adarretara, euskara" eta, bestetik, denboratasuna, hau da, 2000.urtea.

Jaialdiko abestian **Irriu abesbatzak** eta **Labrit** usurbildarrak ere parte hartu dute.

Beraz, UEMAren aitzindari izan den Usurbil eta usurbildarrek apostu garbia egin dute, berriz ere, euskararen alde.

Espero dugu erantzuna egindako lanaren tamainakoa izango dela.

### Abestiaren hiru bertsio

Jaialdiko abestiari Imanol Urbietak jarri dio doinua. Letra, berriz, Andoni Egañarena da.

Abesti honek hiru bertsio

ezberdin izango ditu: bertsio ofiziala Exkixuko Alexek, Usurbilgo Labritek eta Irriu abesbatzak kantatzen dutena da. Bigarrena, etxeko txikieneztat abestuko dute Takolo, Pirritx eta Porrotxek. Erritmo "martxosogoaekin" datorkigu hirugarrena.

## Espero dugu erantzuna egindako lanaren tamainakoa izango dela

"Hemendik At" talde iruindarraren eskutik.

Gauzak espero bezala badoaz, 6000 CD inguru zabalduko dira Euskal Herri osoan.



**Jon Arriaga**

Kaleberri

**O**so ondo iruditzen zait festa hau Usurbilen antolatzea euskara bultzatzeko baldin bada. Espero den horrenbeste jende ez da etorriko, jendeak urtezarrak bere herriko giroan ospatzen duelako.



**Iker**

**Alduntzin**

Kaleberri


**E**z zait gaizki iruditzen, beti euskarari bultzada emateko baldin bada askoz hobe gainera. Baina ez dut uste eguna horren egokia denik, oso zaila delako jende asko etortzea egun berezi horretan.



**Margari Larreta**

Kaleberri

**U**surbil UEMAn sartuta dagoenez, herri egokia da euskararen alde horrelako festa bat antolatzeko. Gauzez agian jende asko etorriko da urtezar gaua oso berezia izaten delako, baina egunez ez da horrenbeste jende ibiliko.



**Larraitz Sarasola**

Kaleberri

**F**esta oso haundia da eta iruditzen zait herri guztia festa honen alde egingo duela, eta betiko herri giroa galdu egingo da. Agian, beste egunen batean antolatuko balitz eragin haundia goa izango zuen.



**Arantzazu Aranburu**

Gaztañazpi

**E**ra honetako jaiak ondo iruditzen zaizkit, baina urte zahar egunez ez zait hain egokia iruditzen. Nik nahia-go nuke urte zahar eguna ohiturak dioen bezala ospatzea. Urteari amaiera era tradizionaean ematea gustatuko litzaidake, gabon giroan, etxe giroan, eta ohitura zaharrari jarraituz.



**Joxe Manuel Iturrioz**

Kaleberri

**F**esta hau Usurbilen antolatzea oso egokia da. Horrela, herriko jendea herrian geratuko da eta ez da kanpora irtengo. Herrian gelditzeko aitzakia hona da.



**Aloña Pulido**

Kalezar

**E**uskeraren aldeko diren festa guztiak ondo iruditzen zaizkit. Nere ustez, arrakasta izango du egun berezi bat delako eta jende asko etorriko da kanpotik. Beste edozein egunetan egingo balitz, agian jende gutxiago egongo zen.



**Mari Karmen Aranburu**

Harrobi txulo

**O**ndo iruditzen zait herrian euskararen aldeko festa bat bultzatzea datorren mendeari begira. Donostitik gertu egotean, normalean jende dexente etortzen da Usurbila urte zahar gaua ospatzera.



## Etxebizitzak egiteko lurren izendapena

**B**abes ofizialeko etxeen, Etxe sozialen eta alokairuko etxeen inguruko kezka ere udalera iritsi da. Aurreko alean esan genuen bezala herrian inkesta bat egingo dute, eta Ikertalde izango da hori aurrera eramango duena. Hala ere, beste pauso bat ere eman du udalak: etxebizitza mota horiek egiteko behar diren lurak zein diren izendatzeko tramiteak hasiko ditu laister batean.

Ikertalde taldea inkesta hori egiten laister hasiko da. Horretarako, ordea, herritarren laguntza ezinbestekoa izango da. Etxebizitzen arazoa gai garrantzitsua izanik, inkesta horretan parte hartzea eta erraztasun guztiak ematea eskatzen zaie herritarrei.

Bestalde, gai honen inguruan beste erabaki garrantzi-



tsu bat hartu zen azaroaren 30eko plenoan. Babes ofizialeko etxeak, etxe sozialak eta alokairuko etxeak egiteko lurak izendatzeko tramiteak hasteari baiezkoa eman zitzaion. Hasiera batean 1998an Eusko Jaurlaritzak onartu zuen legeari jarraituz, herriaren lur patrimonialaren

haunditzea egiteko lur horiek izendatu dira. Olarriondo poligonoan kokatuta daude lur horiek. Olarriondo poligonoaren segida izango litzateke, Agerre azpi baserrira doan bidearaino hain zuzen ere. Hala ere desberdina da lur horiek izendatzea, eta lur horiek bereganatzea.

## Hegoaldeko herrialdeen kanpo zorraren barkamena eskatuz

**A**maia Goyaran PSOEko Aordezkariak Hegoaldeko Herrialdeen kanpo zorra barkatzearen aldeko mozioa aurkeztu ondoren, udalak mozio honi baiezkoa ematea erabaki zuen pasa den azaroaren 30ean..

Udalbatzak Hegoaldeko herrialdeen kanpo zorra barkatzearen aldeko adierazpena egitea erabaki du. Era

berean giza garapenerako inbertsioetan parte hartzea eta bizi duten egoera larria arintzeko egin daitekeen guztia egiteko konpromezua ere hartu du.

Honenbestez, E.A.A.ko Gobernu eta Legebiltzarrari, estatu espainiarreko gobernuari eskaera hauek egiteko eskatuko zaio erabaki zuen udalak:

- Zor publikoa barkatzea, herrialde zordunetan giza garapenerako inbertsioetan erabiltzeko.

- Kanpo zorra barkatu eta laguntza emateko plangintza orokor bat egin dezala.

Bestalde, udal mailan Hegoaldeko herriekin solidario-ago izateko eta gure bizimodu aztertze konpromezua hartu zuen udalak.

**TXARO ARTZE  
ILEAPAINDEGIA**  
Buru-azalaren zainketa  
Ile-apainketa

Orain ere,  
zutikako solarium-a  
zure eskura izango duzu!

Etxebeste, 3 Telf.: 943 371685

**gorriti**  
EDARITEGIA

kafe berezia

San Esteban kalea, 8  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL

**ZENDOIA-ENEA**

**TABERNA**

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaietakoak,  
eguneroko menuak eta  
bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60

## Hikaren lan berria. "Euskal off 2050"

**H**ika antzerki taldeak "Euskal off 2050" antzezlanaren aurkezteko prentsaurrekoa eman zuen pasa den abenduaren 1ean udaletxeko pleno aretoan. "Arrautza delikatuak" lanarekin 50 emanaldi baino gehiago eman ondoren, erronka haundiago bati heldu diote orainoan. Ordu eta erdiko saioan bere alaba (euskara) galdu duen ama baten historia kontatuko dute.

Horretarako 2.050. urtera egingo dute salto. Urte horretan Bill eta Mary, amerikar turista bikote batek Euskal Herriko kultura eta hizkuntzaren museo antropologikoa bisitatzea erabakitzen dute. Bertako hizkuntza, munduko hainbat eta hainbat hizkuntza gutxitu bezala, hizkuntza nagusien ondorioz desagertu egin zen. 2.050 urtean, museo hori da beraz Euskal Herriaz gelditzen den azken aztarna. Baina hau ez da edozein museo bezalakoa, bertan hainbat ezusteko emango dira.

Basque Anthropologic Museum horretara bisita egitera doazen bi iparamerikarrak areto horietako batean galdutako alaba baten bila dabilen ama euskaldun batekin egingo du topo, eta ama eta alaba horren arteko istorioak hunkituko du amerikar emakumea. Horrek indartuko du antzezlanaren haria. Hala ere, alaba galdu duen amaren drama hori ez da antzezlanak konta-



tzen duen istorio bakarra, aretoz areto istorio desberdinak hezurramituz joango baitira.

Euskararen normalizazioari buruzko kezka da "Euskal off 2.050" antzezlanaren jatorria. Azken hilabeteetan formato txikiko "Arrautza delikatuak" antzelana aurkezten ibili dira, hau ere kezka horretan oinarritua, baina "Bai euskarari" kanpaina martxan jarri zenean formato haundiko lan bat eskatu zien Iturri Kulturgintzak. Azken finean, Hika taldeaz gain, Txalo ekoizpenak eta Iturri Kulturgintzak parte hartu dute ekoizpenean.

### Euskararen etorkizunaren gogoeta eta umorea

**Agurtzane Intxaurrea** izan da obraren egilea. Bere esanetan hasieratik garbi zuten topikoetan ez zutela erori behar. "Euskararekiko kezka-  
ren inguruko diskurtso

*errepikakorretik aldentzea izan da gure asmoa. Ama eta alaba baten istorioa dago, lurra eta euskararen artekoa, azken batean azken lana ez da diskurtsoa nabarmentzeko, jendeak ondo pasatzea ere nahi izan dugu". Horretarako antzezlanak ikusentzunezkoak, dantza, olerkia eta umorea nahasten dituzte.*

**Anjel Alkain, Loli Astoreka, Belen Cruz, Miren Gojenola eta Josu Mujika** dira antzezleak. **Agurtzane Intxaurrea** izan da egilea eta **Macarena Pombo** madrildarra berriz, zuzendaria. Hala ere beste pertsona askok parte hartu du antzezlan hau prestatzeko garaian: besteak beste, **Mikel Laskurain** produkzio lanetan, **Joxan Goikoetxea** musika arloan, **Kaki Arkarazo** soinu aholkularitzan eta **Imanol Eizagirre eta Nagore Leoz** usurbildarrak jantzi eta atrezzoak egiterakoan.




## Urtinea Elkarteak

*Loreak - Lore landareak*

*Lore sortak - Koroak*

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55



## Ekaitz

### Bideo eta ARGAZKIAK

Usurbil

Tlf 943 36 14 87


01ARTZIUN



**O**ria ibaia garbia pasako omen da Usurbildik 2007. urtean, hori esan du behintzat **Koruko Aizarna** Gipuzkoako Foru Aldundiko uren departamentuko diputaduak. Urte horretarako Legorretan eta Aduna-Zizurkilen depuradorak jarriko dituztela aurreikusita dago eta gaur egun ibaiaren garbitzeak daraman erritmoa ikusita Oria ibaiako urak garbiak izango omen dira. Egia ote? Gure arbasoek esaten duten moduan bertan bainatzeko aukerarik izango ote dugu?



**I**a gizaldi eta erdi ate eta leihoak itxirik egon ondoren zahar.berritu on bat eman eta berriz zabaldu dute **Atxega jauregia**, baina oraingoan ostatu bezala. Pasa den azaroaren 30ean egin zuten inaugurazio ekitaldia eta herriko jende ugari bertaratu zen Atxega jauregi zahar-berritura. Urtarrilaren 8an hasi ziren lanean, eta 11 hilabetearen buruan gotik behera berritu dute ondare historiko hau. Hori bai, oraindik ikusten dira mendeetan han egon diren harri eta egurrezko bigak.



**A**-8 autopista eta N-1 errepidea lotzeko Irubide eta Txikierdi artean egin dituzten lanak amaitu dituzte dagoeneko. Pasa den azaroaren 27an inauguratu zuten **Lasartetik Aritzetara arteko errepide-lotura** eta dagoeneko amaitu dituzte 1997ko apirilean hasi zituzten obrak. Guztira 2.800 metroko luzera du pasa den ostiralean ireki zuten ibilbide nagusiak, eta orain, Irubidetik Donostiara joan eta Donostiatik Irubidera etorri daiteke Añorgatik pasa gabe.

# GALARRAGA GARRAIOAK

- LUR ONGARRIAK
- ZABOR BILKETA
- ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46



**ZUMETA  
JATETXEA**


## ZUMETA MENUAK (Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez.
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piliko piperraz haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburukoan dastapena
- Ogia eta kafea 3.675 pza. (pertsoneko)

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

## Herri kirolen ikuskizuna bizi-bizian

**A**ginaga eta Igeldoko taldeek ikuskizun polita eskaini zuten pasa den azaroaren 28an arratsalde partean herriko frontoian. Han bildu zirenek mota desberdinetako herri kirolak ikusi ahal izan zituzten bi taldeen arteko lehia bizi bizian. Txingak eramaten, zakua eramaten, lokotx biltzen, frontzan, ingudea altxatzen... proba desberdinekin zirkuito bat bete behar izan zuten lehendabizi bi taldeek aldi berean. Ondoren, gurdiari birak ematen eta lasto fardoa ahalik eta urrutien botatzen nahikoa lan izan zuten guztiek.



## 34 usurbildar Behobia-Donostian

**A**urtengoan iazko errekor aguztiak hautsi dituzte usurbildarrek Behobia-Donostia lasterketan. Iaz 25 korrikalarik bukatu zuten proba hau, aurtan

berri 34 izan dira 21 kilometroak egin dituztenak. Denbora onena egin zuena Jon Carbayeda izan zen. 1: 14: 3an jarri du bere marka eta 278. postuan helmugara-

tu zen. Aipatzekoa da emakumezkoen parte hartzea. Azken bi urteetan emakumezkoen ez bazen ere, aurtan hiru usurbildar izan ditugu helmugan.

278	278 Carbayeda Etxeberria, Jon	1: 14: 38	4069	Olano Zugazti, Andoni	1: 36: 37
460	Maiz Pagola, Igor	1: 17: 19	4494	Cuellar Arevalo, J. Carlos	1: 38: 35
893	Rodriguez Gonzalez, Jose	1: 21: 00	4536	Juanes Moro, Felipe	1: 38: 44
924	Eizagirre Zaldua, Santi	1: 21: 12	5597	Rodriguez Begiristain, Jon	1: 43: 13
1306	Sasiain Martinez, Pello	1: 23: 42	5908	Saez Perez, Pablo	1: 44: 25
1390	Molina Cuesta, Agustin	1: 24: 09	6107	Loiti Rodriguez, Eduardo	1: 45: 11
1443	Rezola Mendikute, Arkaitz	1: 24: 24	7127	Kamino Mayoz, Ramon	1: 49: 46
1521	Urdangarin Zumeta, Pello	1: 24: 50	7172	Arruti Beldarrain, Andoni	1: 49: 59
2087	Angulo Almeida, Toño	1: 27: 44	7362	Perez Pineda, Edorta	1: 51: 02
2255	Perez Lizarralde, J. Carlos	1: 28: 33	8047	Eizagirre Zaldua, Arantxa	1: 54: 58
2793	Tapia Lizarra, Jon	1: 30: 54	8048	Imaz Izaguirre, Tomas	1: 54: 58
2945	Unanue Agirrezabala, Kepa	1: 31: 40	8326	Udabe Astigarraga, Andoni	1: 57: 04
3186	Urdangarin Salsamendi, J <sup>o</sup> Javier	1: 32: 40	8531	Olazabal Mondragon, Iñaki	1: 58: 36
3231	Undiano Korta, Xabier	1: 32: 50	8578	Soroa Udabe, Ana	1: 59: 09
3379	Huizi Olaizola, Enrike	1: 33: 26	8805	Unanue Lopez, Aitor	2: 01: 02
4030	Muñoz Mateos, Sonia	1: 36: 27	8807	Roteta Balerdi, Esteban	2: 01: 03
4031	Maritxalar Elizondo, Iban	1: 36: 27	8845	Olasagasti Cencillo, Jon Gurutz	2: 01: 20



ARRAINDEGIA  
**PELLO**

Arizeta Kalea, 1  
Tlf 36 21 64  
USURBIL




**TXIKILINO**

- G O Z O K I A K -

IZOZKIAK - FRESKAGARRIAK - FRUITU LEHORRAK

Zubiaurrenea, 3

Telf.: 696 851979

**ALBORTA**

HARATEGIA

Behoko kalea, 4  
Atxegalde ☎ 943 36 57 42

# Noaúa! eta beste talde batzuen lokala izandako Maistranea etxea bota dute

La hiru urtetan Noaúa! Kultur Elkartearen egoitza izandako Maistranea bota zuten pasa den azaroaren 30ean. Han eman zituen bere lehen pausoak orain bertan eskuartean duzun aldizkari honek. Han sartu ginenean Txaramuntoko etxeak egitekoak zirela bagenekienez probisionalki gure egin genuen Maistranearen beheko alde, baina azkenean ia hiru urte egin genituen bertan. Han pasatako hotza, larritasunak, momentu

onak... ez ditugu berehalakoan ahaztuko. Sagardo Egunaren lagunak eta Elkarriko kideak ere oroitzapen ugari izango dituzte hainbeste urte eman zituzten etxe horretaz. Eta noski, ezin ahaztu garai batean hortxe bertan eskolan ibiltzen zirenek eta postetxeko kideek izandako bizipen guztiak. Maistranea bota ondoren, Txaramuntoko etxeak egiten hasiko dira laister batean.



**TABERNA**

**IRAGOXRRI**

**BAZKARIAK  
ETA AFARIAK**

Santuenea 23  
Tf.9433627 34



**LABE-GOXO**  
D. Irindorio - G. G. Irindorio

**Kale Nagusia, 9**  
**Tlf. 943 37 33 48**  
**943 37 09 13**

**USURBIL**

**SERIGRAFIA  
TANPOGRAFIA**

**IOSU**

Ugaldea poligona 36 - 2<sup>a</sup> Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa  
IRAGARKI SRP  
KAMISPE

# Mendizorrotzen Hegoaldeko zuhaitz igelaren bizi iraupena ziurtatu nahian

**M**endizorrotz mendian bada desagertzeaz dagoen igel mota bat: Hegoaldeko zuhaitz igela. Gipuzkoan inguru honetan bakarrik bizi da igel hau, eta azken hamarkadetan, egoera desberdinen ondorioz, gainbehera joan da piskanaka-piskanaka. Euskal Herriko Natura babesteko legearen barruan, desagertzeko arriskuan dagoen espeziezat hartu zutenez, igel mota hau berreskuratzeke plan bat martxan jarri dute.

Hegoaldeko zuhaitz igela berreskuratzeke plana egin dute dagoeneko, eta plan hau igel mota hau bizi den zonalde bakarrean aplikatuko da: Mendizorrotz mendia- inguruan hain zuzen ere. Desagertzeko arriskuan dagoen igel honen bizi iraupena garrantzitzeko Mendizorrotz mendira hedatzea da helburu nagusia, hiri guneeetatik edo hiriguneen inguruetatik alden dadin saiatuaz. Izan ere, oso gizarteraturik dauden lekuetan, Igaran adibidez, bere iraupena arriskuan egoten da etengabe.

Hegoaldeko zuhaitz igela mediterraneo inguruko lurraldeetan bizi da. Iberiar penintsulan bada, baina ez bertako zona hezeetan. Hala ere, iparraldeko kostaldean, Euskal Herrian bakarrik aurkituko ditugu. Zuhaitz igelaren populazioa atzerabidean daude, beren habitata galtzen edo aldatzen ari baitira. Aldaketa hori urak azidotu direlako eta biozidak daudelako gertatzen da. Azken finean, Euskal Herriko zuhaitz igela bertako espeziea da, bertan iraunkorki bizi dena.

Gipuzkoan Mendizorrotz mendia- inguruan bakarrik bizi da, bizi ingurune egokia duen toki jakinetan, itsas mailatik hasi eta 250 metrotik gora bitartean. Orain, ugalketako bi zonalde ezagutzen dira: Igara eta Berio. Igel hau hezeguneetan bizi da, inguruko

urmael eta putzu iraunkorren eta errekatxoek ertzetan dauden landare ugari estalitako tokietan, batez ere sasi, sahats, lezka eta karizeak eta beste formazio batzuk diren tokietan. Zingira edo ihitokietan ere egon ohi dira, beti ere, landare leku oparotan. Horrez gainera, erreka bazterretako landare zerrondei esker ugalketa guneeetatik bi kilometro urruntzera iritsi daitezke.

Ugalketarako habitata gisa, zingirako landarediz jantzitako ur guneeak erabiltzen ditu: aldian aldiko putzuak, eta urmael eta urtegiak, baita orain arte aipatu izan ez den beste inguru batetan ere: hotel edo etxe partikularretako igerilekuetan alegia. Azken ingurune berri hau ez da espeziearentzat baliagarria, ugalketak ez baitu batere emaitzarik lortzen, umeen arrautzek non itsatsi ez dutelako. Izan ere larbek metamorfosia bukatu baino lehen hustutzen dituzte pisizina horiek.

Azken urteetan egindako kalkulu arabera, zuhaitz igelaren populazioa 1.000-1.200 ingurukoa da. 185/225 Berio daude eta 885/1040 Igaran. Datu hauek kon-



tutan hartuta Mendizorrotzeko zuhaitz igelaren populazioa atzerabidean dagoela esan daiteke. Azken hamarkadetan joera hori haunditzen ari da. 1970. urte aldera bost populazio gunee zeuden mendebaldeko muturrean, bat iparraldean eta bi ekialdeko muturrean. Gaur egun ekialdeko guneeak bukatu dira, iparraldekoan ia alerik ez dago, eta mendebaldeko bizigunean soilik dirau populazio batek. Mendizorrotzen barrena han eta hemen sakabana- natuta dauden putzu txikietan, ustez ugalketarako egokiak direnetan, dakigunez, ez da ugalketarik izan 1998an.

Zuhaitz igelak hartzen duen lurraldean, espeziea ugaltzeko aproposak diren urguneeak piskanaka-piskanaka kentzen ari direla da arazo nagusia. Landaredia duten putzuak gero eta bakana- goak dira, iturri eta urburuetako ura hornidurarako hartzen da, eta aire zabalean ez da ugalketarako gai izan litekeen putzurik sortzen edo ur depositurik egiten. Gero eta ur gehiago erabiltzen da

---

**Hegoaldeko zuhaitz igela hiriguneetatik aldentu eta berriz ere Mendizorrotz aldera eramán nahi da**

---

aisialdirako (igerilekuetan), beraz, modu naturalean ura lortzeko aukera gutxi dagoela dirudi. Zentzu horretan, igel populazioak desagertu izanak ederki azaltzen du Mendizorrotzen dagoen arazo. Igela hezeguneekin eta inguruko landarediarekin harreman estuan bizi da, eta kalte handia egiten diote haien aldaketek eta kanpoko faktore kutsatzaileek; oraindik irauten duen bizigunee-tan ere desagertzeko arriskua ageri da.

Oraingo populazioarentzat bigarren arazo handia populazio ugaltzailearen konzentrazioa da. Izan ere, egoera horretan haundiagoa da hondamendien eraginez espeziea galtzeko arriskua. Hondamendi naturala, isurketaren bat edo bestelako ustekaberen bat gertatuz gero, igelak ugaltzeko biltzen diren garaian gertatzen bada behintzat, berebiziko garrantzia izan dezake. Beste arazo bat ere ekartzen du populazioaren konzentrazioak, harrapaketa-aren arriskua hain zuzen ere.

Bestalde putzuetako uren iturburuetan dauden baserrietako purinen eta hondakin uren isurketek sortzen dituzten kalteak ere garrantzitsuak dira. Aginagan eta Igaran, horien artean Koskolo (Aginaga) eta Errotaxo (Igara) erreken inguruko baserrietakoak esate baterako. Horrelako isurketek asko aldtzen dute uraren kalitatea eta larben bideragarritasunari kalte egiten diote, putzua ugalketa lekutarako alde bateraino uzteraino. Hirugarren faktorea

espeziean edo espezieak erabiltzen dituen baliabide-etan eragina duten harrapakari berriak dira, karramarro gorri amerikarra edo zamoia, adibidez. Horiek eragin handia izan dute Aginagan ugaltzen zen populazioa desagertzera-koan.

Egoera hau ikusita igel mota hau berreskuratzeko plan bat egin da. Honen helburu nagusia zuhaitz igela bizi den inguruaren industria zein hirigintza arloko garapenak igelengan duen ikaragarrizko eragin hori saihestea izan da, izan ere, hori baita gaur egun espezie horrentzako zuzeneko zein zeharkako arriskurik haundiena, igelik gehienak industriak nagusi diren alderdi batean bizi baitira, hiri ingurunearen ondo ondoan. Hori dela eta, espezie hori hiriguneetatik aldentzea eta berriz ere Mendizorrotz aldera eraman nahi da. Hala bada, igelak ingurune naturalean bizi ahal izango dira berriz ere, inolako mugarik gabe, edo behintzat naturak berak ezarritako mugak bakarrik dituztela.

### Herriko baserri batzuen ondoan putzuak

Horretarako gaur egun dauden putzuak berreskuratu eta berriak egingo dira espezie hori Mendizorrotzen berehala sartzen hasteko. Aurreneko fase honetan putzuak mendiaren hegoaldeko

### Foru aginduaren arabera Gipuzkoako lurralde historiko osoan debeku hauek indarrean egongo dira:


- Hegoaldeko zuhaitz igelak, horien larbak eta arrautzak barne, baimenik gabe hiltzea, harrapatzea, jazartzea eta traba egitea. Baita ere ugaltzen diren gunek suntsitzea.


-Hegoaldeko zuhaitz igelak, biziak edo hilak, baimenik gabe eduki-tzea, naturalizatzea, garraiatzea, saltzea, erakustea, inportatzea edo esportatzea.

magalean prestatuko dira, hala egiteko hainbat arrazoi daude eta: ekologiarene aldetik egokia-goia da alderdi hori, etxebizitzetatik eta jendea bizi den ingurutik urrun dago eta gaur egun dauden igel multzoen jarraipena eta hartu-emanaren garantizatzen du. Putzuak honako baserri edo toki hauen ondoan egingo dira, tartean konpondu ezin diren arazorik ez badago behintzat: Goienetxe fundazioa, Munotxabal baserria, Barrenetxeko zuloa, Baldazar baserria, Etxebeste baserria, Urteta baserria, Egieleta baserria, Gurelesa (2 putzu) eta Artikula baserriaren ondoan. Fase honen bukaeran gaur egun Igaran espezie hori hazten ari den putzuak utzi eta toki egokian, hiri eta industri guneetatik gero eta urrutiago prestatutako putzu naturalerara eramango dira igelak. Honela, bizileku berri horrekin Gurelesako putzuan bizi den igel talderik haundiena eta A-8 autobidearen ondoko ur banaketa lerroko mendi lepoan egongo dena hartu-emanetan egongo dira.

Bigarren fasean putzu berriak egokituko dira, aurreneko multzotik urrutiago dauden tokietan, iparraldetik kostara eta mendebaletik Orio muga dutela. Horrela, espezie horrek Gipuzkoan garai batean hartzen zuen alde guztia hartuko du.

Josu Aranberri





Mikel Usabiaga

Udarregi  
ikastolako irakaslea

Hainbat maratoi  
egindako gizona

## “Baztan baitan Baztan izan nintzen”...

Asteroko lanka sortzen duen bete-kada arintze arren, Baztan aldera ibilalditxo bat egitea otu zitzaigun. Udazkeneko giro epela eta kolorez jantzitako eguna suertatu zen, hego haizeak bere baitan zeramatzan laino zuri bakar batzuek argazkirako aukera paregabea eskaintzen zutelarik.

Bidasoa ibaiaren inguruan gindoa-zela, bera zeharkatzen ibilitako hainbat euskaldun eta ez euskaldunen pasarte latzak burura ekarri genituen. Zer ez ote du ikusi ibai honek?

Berehala Enderlatsan ginen, Gipuzkoa eta Nafarroako mugan. Oroitzapen historikoetan murgilduz, 1873an Gobernuaren tropen kontra ezusteko kolpea emanez, Santakruztek hogeitamabost karabini-ero fusilatu zitueneko gatazka hura berri-erituen. Orain ere, orduko antzeko egoera errepikatzen dela iruditu zitzaigun: Gure eskubideak, furoak, defendatzearen, herriak hainbeste miresten zituen gudari-erik gogor ekin zioten borrokari, nahiz eta euskaldunon etorkizuna “ziurtatzen” zuten Karlisten gogokoak ez izan. Betikoa.

Handik bostehun bat metrotara berriz, lehengo trenbide zaharretik oinez gindoa-zela, Intxaurrendoko Koarteleko torturazaitileen eskutan, Mikel Zabaltzak nozitu behar izan zuen bukaeraz oroitu ginen. Hura ere Bidasoak hartu zuen bere altzoan.

Baina atera gaitezen hemendik, kolore ugarietako hostoz margotutako paraje eder honetatik, zuk irakurle, Bidasoa triste eta atsekabez betetako ibaia dela pentsa ez dezazun.

Goiz eder hartan, 11.00ak aldera edo, Bortzirietako herririk bitxienetakoan sartu ginen. Inguruko baserrietaren eta artisauen feriaz gozatzeko eta ikusteko aukera ezin hobea egokitu zitzaigun.

Altzate Kalea zeharkatzean, denetik ikusi ahal izan genuen, inguruko barazki, fruitu eta beste hainbat produktu desberdin. Artisauak lanean ikusteko aukera ederra izateaz gain, metalez, zuraz, hariz, buztinez,... eginitako hainbat gauza bitxiren erakustaldi bikaina eskaini ziguten.

Feria alaituz bertako dantza taldea aritu zen “Axuri Beltza” eta beste hain-

bat dantza kalez-kale eskainiz, hain maitea duten akordeonaz lagundurik.

Halere ikuskizunik hoberena Altzate kalea bera da, Arkitektura Popularraren eredurik ikusgarienetakoa baita.

Udazkenaz ase nahirik, Etxalarrera abiatu ginen. Bertako XV-XVIII. mendeetako etxeetako fatxadak, nola zurezkoak hala harrizkoak ikusteaz gozatu ondoren, Zugarramurdira edo Otsondoko gainera eramaten duen errepide estua hartu genuen. Erreka eta baratze artean hasi eta pagadietatik pasatzen den errepide hau gomendagarria da benetan.

Urtsuako lepora iristean Aitxuri mendi gailurra ikusiz, Txilardegik bere azkeneko “PUTZU” eleberri historikoan dioen “Aitxuriko gotorlekutik, hasi dira Don Carlosen ohoretan kañoi-salba azkengabeak botatzen,...”- Karlos Setimo geurea hemen dugu!” pasarte berri-erituen. Karlismetako ingurune honetan, bada zer oroiturik eta zer ikusirik.

Paraje polit hau, Borda izenez deitzen zaien baserri-erituta dago. Hauetako bat, Etxebertzeko Borda da. Oihanaren barren-barrenean dago, kolore guztietako zuhaitzez eta abere-erituta. Eta oraindik xarmantagoa izateko, Infernuko erreka deritzana pasatzen zaio ondo-ondotik. Bertako biberotan hazitako amurrua dastatu dezakezu, aurrez babarrun eta antzeko plateraz lagunduta. Gu asmo horretan hurbildu ginen baina kalabaza ederra jaso genuen. Aurrez egin behar izaten da eskaera.

Azkenik Otsondoko gainera irten, Gorramendira doan bidexka hartu eta pare bat kilometrotara, Baztan aldeko sakanaren paisai paregabea behatuz, Xorroxin irratia sintonizatu eta inguru haletako euskararen edertasunaz goxatu genituen belarriak.

Arrazoin zuen bai Joxan Artzek, idatzi zuen poema hartan:

“...leihoa ireki nuen  
eta emeki emeki  
Baztango lurtean  
Baztan baitan  
Baztan izan nintzen”





## Bertsoak

### Euskal Presoak Euskal Herrira!!

"España" eta "France" aldetik  
indarrez sartu etxera  
beraien lege arrotzak gogor  
jaurtiaz gure artera  
iruzur eta azpijokoez  
interesak babestera  
konpondu nahi duten era:  
guztia "a su manera" (bis)  
baina kemenik ez zaigu falta  
indarra dugu sobera  
kolpe latzak hartuta ere  
beti altxatuko gera (bis)

Herrera, Dueñas edo La Sante  
jartzen bagera begira  
herriaren hitza eraman dute  
loturik presondegira  
baina txoriak hegan in ohi du  
gogotsu bere kabira  
askatasunan harira  
denok elkartzen bagira (bis)  
borroka hontan tinko jarraituz  
handik ta hemendik tira  
Euskal presoak Euskal Herrian  
laister ikusiko dira! (bis)

Egilea: Aloña Azpiroz

## Lehiaketa



### Zer izen du baserri honek?

Asmatzaileen artean  
Tragoxka tabernan bi  
pertonentzako afaria  
zozketatuko dugu.

Laukote bikaina azken aleko lehiaketako argazkian atera genuena. Oraingoan zenbait-tek ez du hauen izenak asmatzeko arazorik izan. **Inaxio Aisa, Joxe Makazaga, Juan Mari Ikatzeta eta Juan Orbegozo** dira argazkiko lauak. Asmatzaileen artean zozketa egin ondoren, berriz, **Iñaki Urkia Urdanpilletak** izango du Bordatxo tabernan afaltzeko aukera. Zorionak eta on egin deizuela!

## TXIMINIA ALTZARIAK

### Osinalde industrialdea

(Aizpurua autobusen aldamenean)

Tel.: 943 37 09 66

BISITA EZAZU  
ALTZARI ERAKUSKETA HANDI BAT  
USURBILEN BERTAN.

PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA  
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.

*ESKAINTZA BEREZIAK BETI!!*

# A genda

## ABENDUAK 11 larunbata

- **Udalbiltza eguna** izango da. Usurbilgo udala Udalbiltzan sartuko den egun honetarako ekitaldi ugari antolatu dira goizean zehar.

## ABENDUAK 12 igandea

- Arratsaldean "**Lurrazpiko kanoak**" antzezlanaren herriko frontoian. Herriko tabernarien elkarteak, udalak eta Noaua! elkarteak antolatuta.

## ABENDUAK 13 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!** konzentrazioa. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan hasita.

## ABENDUAK 18 larunbata

- Gauean formato txikiko **bi antzela** aurkeztuko dira herriko 2 tabernetan. "**My family**" eta "**Gaur gauean bakarrik**

**gaude**". Herriko tabernarien elkarteak, udalak eta *Noaua!* elkarteak antolatuta.

## ABENDUAK 20 astelehena

- **Euskal Herria Askatu** konzentrazioa. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan hasita.

## OHARRAK

- ✓ Usurbilen **pisu bat osatzeko pertsona bat behar da**. Deitu gaueko 22.00etatik aurrera 943-361210 telefonora (Niko).
- ✓ **Andatzpe** elkartean **bazkide hutsune bat dago**. Baldintzak jakin nahi dituenak deitu 943-366760 telefonora
- ✓ **Bi haur zaintzeko esperientziadun emakume bat** behar dugu (30 urtetik gorakoa)

Deitu 943 363997 telefonora.

- ✓ Atxegalden **Xabi janaridenda alokatzen da**. Interesatuak deitu 943-370835 telefonora.
- ✓ **Volkswagen Passat kotxea saltzen da**. SS-AB matrikula eta 150.000 kilometroekin. Mantenimendu liburu eta guzti. Ongi zaindua. 200.000 pezeta. Tlf. 63091148
- ✓ **Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko**. Egunean 2 orduz eta astean 3 bat egunetan. Tlf. 943-371214
- ✓ Azaroaren 22an arratsaldeko 19.00ak aldera tolestatzen den **haur aulkia galdu zitzaigun** eliza eta Patri tabernako izkiran. Haur aulkia jaso zuenak telefono hauetara deitu: 943 361235 edo 943 366014.

## Udalbiltza eguna abenduaren 11an

Goizeko 9:00etan esnadeia herriko txistulariekin.

Ordu berean, Andatza eta Bordatxo mendigailurretan ikurriña-jar-tzea, eta bi mendi tontoretik 6 suziri botako dira.

Trikitilariek kalea girotuko dute.

Goizeko 11:30etan: Udalak hautetsiei eta herriko taldeei ongi-etorria egingo die txalapartak lagundurik.

Ondoren, herriko dantza-taldeak, ikurriñari agurra, herriko bandera eta ikurriña Udaletxeko balkoian jarri.

Eguerdiko 12:00etan: Udalbiltzaren ekitaldi ofiziala:

- Mozioaren onarpena

- Onartutako mozio hau sinatzea bai hautetsi berriek, bai hautetsi ohiek, bai herriko taldeek, baita ere herritarrek.

Bukatzeko: Joxe Martin Sagardiaren Plazan, hamaiketako.

## URTEZAHAR EGUNEKO JAIALDIA

Antolatzaileek herrian egingo den "**Milurteko azken jai**" egun osoko egitaraua aurkeztuko dute udaletxean arratsaldeko 19.00etan

**ORBELDI**

MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

**ESTRELLA**  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Zubiaurrena, 10  
Tlf. 943 37 18 07- Fax: 943 37 63 41



TABERNA

"GYRE PRESOAK"

HERRIAN BEHAR DITVGV"

Iraza kalea, 12  
Tlf. 943 36 02 17

Pinturas  
Ion

943 83 09 37 ☎ 670 397504

# Kultur dinamizatzaile eta publizista berriak

**Noaua! Kultur Elkarteak zeharo beraberrituta emango dio ongietorria 2000. urteari. Izan ere, kultur-dinamizatzaile eta publizista berriak baititu. Orain arte Inaxio Usarralde aritzen zen dinamizatzaile lanetan, orain, berriz, Amagoia Mujikak beteko du lan hau. Publizitate arloan berriz, Saioa Errok egiten zuen lana, orain Agurtzane Solaberrietari dago-kio.**

**D**uela bi urte hasi ginen Noaua! aldizkarian lehen urratsak ematen. Hasieran kronista modura eta pixkanaka-pixkanaka "kazetari" lanak ere egiten hasi ginen. Biok Kazetaritzako ikasleak gara eta guri aukera benetan polita eskeini zigun Noaua!k. Ilusioz ekin genion gure lanari, kazetari izan nahi duenaren ilusioz. Bi urte hauetan asko ikasi dugu, hala ere, badakigu oraindik asko dagoela ikasteko. Kazetaritza mundua zabalda da oso eta kazetariak beti dauka zer ikasia, kazetari ona izan nahi badu behinik behin.

Inaxiok beste lan bat aurkitu zuela eta Noaua!n dinamizatzaile bat behar zela eta...zergatik ez ausartu? Hasieran temati azaldu nintzen ,ni lan

hori betetzeko prest nengoela esan nuen, baina ez oso ozen. Inaxio "zakur zaharra" dugu eta asko ibilia da mundu honetan, ni, berriz, zer esango dizuet ba ? Hala era, ilusiorik ez zait falta eta gogoz eutsi diot lan berriari, zer arraioi!! Beraz, ongi esanak kontutan hartu eta gaizki esanak ahaztu.

Hurrengo urtean Saioak publizitatean jarraitzeko asmoric ez zuela eta beste pertsona baten bila zebiltzala banekien. Baina, nork esango zidan niri proposatuko zidatela? Publizitate alorrean jardutea inoiz pentsatu ez dudan arren, ez nuen denbora asko behar



izan proposamen honi erantzuteko.

Beraz, biok lan berri bati ekin diogu. Gogoia eta ilusioa ez zaigu falta, eta guzak ahalik eta txukunen egiten saiatuko gara. 2000.ak munduaren amaiera ekartzen ez badu behintzat, guk lanerako prest jarraituko dugu!

**BAZKIDIE TXARTELA**

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

**460**

**bazkide ditu Noaua!k.  
 Zu ere egin zaitez  
 bazkide**



**Usurbilgo OIARDO Kiroldegian**  
1999ko abenduaren 19an, arratsaldeko 5etan

# **TAKOLO PIRRITX ETA PORROTX**

**"PLISTI - PLASTA"**

**Lan berriaren aurkezpen emanaldia**

Salgai: Orio (Arkaitz), Lasarte(Artizar),  
Usurbil (Aitzaga eta Kiroldegia), Hernani (Lete)

Sarrerak: aurretik 600 pzta., egun berean 700 pzta.  
Antolatzailea: ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldea